

Plazera irakurtzearekin lotuz

Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko asmoz, liburuak erosteko eta oparitzeko kanpaina abiatuko du Topaguneak.

IRUNE BERRO. BILBO

Irakurri, gozatu eta oparitu goiburupean, irakurtzeko zaletasuna sustatzeko kanpaina abiatuko du aurten laugarrenez Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak, Liburuaren Nazioarteko Egunaekin bat eginez. Adin guztietako herritarren artean euskarazko liburuak irakurtzeko zaletasuna piztea du helburu nagusi ekimenak, baina horrekin batera, irakurtzeko zaletasuna gozamenarekin lotzeko xedea ere badu, eta irakurleen artean sareak sortzekoa ere.

Liburutegietan euskarazko liburu bat maileguan hartzean, fitxa bat bete beharko dute irakurleek. Hartara, liburuak erosteko deskontu txartelak lortuko dituzte -beherapena %25ekoa izango da; eta %50ekoa, euskara elkarteak bazkidea izanez gero-.

Txartelek erositako liburu horiek inguruko jendeari, senide, lagun edota lankideei oparitzea da Topaguneak proposatu duen azken urratsa. Helburua: irakurketak dakarren gozamina ahalik eta jende gehienarengana iristea.

Aurten, Euskal Herriko hamasei herritan egingo dute ekimena. Laudion (Araba), Santurtzin, Durangon, Ermuan, Basaurin, Zaldibarren (Bizkaia), Tolosan, Deban, Lazkaon, Andoainen, Asteasun, Villabonan, Urnietan (Gipuzkoa) eta Irurtzunen, Lizarran eta Etxarrin (Nafarroa).

Iaz beste bost herritan ere egin zuten Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina. Krisiak, baina, bete-betean eragin diela azaldu du Manu Morenok, Topaguneko teknikariak. Izan ere, kanpainaren zati bat Topaguneak berak finantzatzen du, baina gainerako dirua tokian tokiko euskara elkarteek jartzen dute, eta diru laguntzak nabarmen murriztu dizkiete.

Nolanahi ere, kanpainak emaitza onak ekarriko dituela sinetsita dago Moreno. Iaz, 933 fitxa bete ziren, eta 537 liburu saldu.

Irati Jimenezentzat beharrezkoak dira tankera honetako ekimenak, eta horregatik izan zen atzo Irakurri, gozatu eta oparitu kanpainaren aurkezpenean. Irakurtzen ez duten irakurzaileak badaudela eta kanpainak horien gogoia pizteko balio dezakeela uste du idazleak. "Denok dugu liburu bat, eta bilatzeak gozamen handia ekar dezake. Aurkitzen duzunean, gainera, izugarrizko konpainia da.

Oparitutako liburuak apalean toki berezi batean jartzen dituela azaldu zuen Jimenezek, bihotzean ere leku berezia betetzen dutenez.